



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2023ko ekainaren 9ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko ekainaren 9an, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : GOICOECHEA Iñaki.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : JORAJURIA Ramuntxo.

Deialdiaren eguna : 2023ko ekainaren 2a

Afitzatze eguna : 2023ko ekainaren 2a

### **1. ERABAKIA: FRANTZIAKO SENATURAKO HAUTESLE KOLEGIOA OSATUKO DUTEN HERRI BILZARKIDE DELEGATUEN IZENDAPENA** (5.3 nomenklatura)

Auzapezak oroitarazi du, 2023ko apirilaren 6ko dekretuak Herri Biltzarra deitu duela 2023ko ekainaren 9rako, Frantziako senatariak hautatuko dituen hautesle kolegioko delegatu titular eta ordezkoen izendatzeko.

Pirinio Atlantikoetako prefekturako 2023ko maiatzaren 22ko 64-2023-05-22-00007 ordenantzaren arabera, gure herriak hiru delegatu eta hiru ordezko izendatu behar ditu, gehiengoaren bozkarekin eta bi bozka alditan.

Delegatuak eta ordezkoak berex izendatu behar dira. Biltzarrak lehenik titularrak izendatzen ditu eta jarraian ordezkoak.

Hautagaiak banaka auzapeza daitezke, edo zerrenda batean, nahiz eta zerrenda ez osoa izan. Izenak gehitu edo kendu daitezke. Frantses naziotasuna ez duten biltzarkideek ezin dute bozketan parte hartu.

Bozketan, eztabaidarik gabe egiten da, gehiengoarekin eta bi bozka alditan.

Hautagai batek lehen bozka aldian bozken gehiengo absolutua erdiesten duenean, hautagai hori hautatua da. Bozken kopura bikoitia denean, bozken erdia gehi bat lortzen badu, orduan ere hautatua da. Bozken kopurua bakoitia denean, gehiengo absolutua ukateko hurrengo zenbaki osora biribildutako erdia erdietsi behar du. Hala ez bada, bigarren bozka aldia egingen da eta orduan gehiengo erlatiboa aplikatuko

da. Berdintasuna gertatuko balitz, hautagai zaharrena hautatuko da.

Hautagaiak zerrendatan aurkezten badira, bozkak hautagaika zenbatuko dira, ez zerrenda osoarentzat.

Zehaztu du, Auzapeza buru duen bozka bulegoa honela osatua dela:

- Bozketa abiatu denean zaharrenak diren bi Herri Biltzarkideak: Jean-Claude IRIART eta François IÑARRA
- Bozka ireki denean bi Herri Biltzarkide gazteenak: Elena CASIRIAIN eta Elorri AYÇAGUER.

Erregistratu diren hautagaitzak:

- delegatuen titularren bozkarako:
  - Jean-Marc OÇAFRAIN
  - François IÑARRA
  - Jean-François MATEO
- ordezkoen bozkarako:
  - Xantxo LEKUMBERRY
  - Odile FALXA
  - Corinne CHAMALBIDE

Bozketa arratseko zazpiak eta erditan ireki da.

- **Delegatuen bozketa**

Honakoak dira emaitzak:

- bozka-orri kopurua: 14
- bozka-orri xuriak edo balio gabeak: 0
- bozka kopurua: 14
- Gehiengo absolutua: 8

Emaitzak:

- Jean-Marc OÇAFRAIN: 14 boz
- François IÑARRA: 14 boz
- Jean-François MATEO: 14 boz

Jean-Marc OÇAFRAIN, François IÑARRA eta Jean-François MATEO jaunek gehiengo absolutua ukan baitute, senatarien hauteskundeetarako delegatu izendatuak dira.

- **Ordezkoen bozkatzea**

Honakoak dira emaitzak:

- bozka-orri kopurua: 14
- bozka-orri xuriak edo balio gabeak: 0
- bozka kopurua: 14
- Gehiengo absolutua: 8

Emaizak:

- Xantxo LEKUMBERRY: 14 boz
- Odile FALXA: 14 boz
- Corinne CHAMALBIDE: 14 boz

Xantxo LEKUMBERRY, Odile FALXA eta Corinne CHAMALBIDE-k gehiengo absolutua ukan baitute, senatarien hauteskundeetarako ordezeko izendatuak dira, honako hurrenkeran beren adinaren arabera:

- Xantxo LEKUMBERRY
- Odile FALXA
- Corinne CHAMALBIDE

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balitzko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko ekainaren 9an

Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2023/06/16an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/06/16an.